

noaua

**Errigoraren kanpaina
berri bat martxan da**

Inauteriak, iruditan

**Gaztetxoei zuzenduriko
film bat eskainiko dute
igandean Sutegin**

Larunbatean manifestazioa Donostian, “Ez erre etorkizuna” lelopean





*Lore eta zentru aukera
zabala!*



San Esteban Auzoa, Usurbil - Tel: 943 36 22 55



**Zetako
bidea**
(Uzbekistan)

**AZKEN
PLAZAK**

**BIDAIK
TALDEAN**



**Eslovenia
& Istria**



LASARTE ORIAIK, NOAOAK GIDATUA

943 37 36 13

info@noaoa.eus

noaoa.eus



%100 bertako sagarra

*Txotxetik sagardoa
jarraitu usadioa!*



Santuenea,
Telf: 943 36 50 31

SAGARDOTEGIA



Usurbilen,
zure auto-tailerra



Etxe

Ramon

Atallu

AUTOAK

Motorra
Balaztak
Mekanika
Esekidurak
IAT-aurrekoa
Pneumatikoak
Ihes Kanalizazioak
Injekzio Elektronikoa
Berehalako Zerbitzua

DOHAINIK

IAT-aurrekoa
Pneumatikoak
Ihes Kanalizazioak
Injekzio Elektronikoa
Berehalako Zerbitzua



Atallu industrialdea, Oria kalea 4 / Usurbil 20170 / 943 37 74 78 / atalluautoaki@gmail.com

Albisteak iruditan

Zaborra nonahi

Usurbilgo Udalaren twitter kontuan ikusi genuen ondoko argazkia. Eta argazkiarekin batera, salaketa moduko idatzia: “Ibai bat garbi dagoela esateko ez da aski urari soilik erreparatzea: ibaiertza eta erriberak garbi egotea ere beharrezkoa da”. Udal-brigadak otsailaren erdialdean ateratako argazkia da, “Oria ibaiaren ingurukoa, zer pentsatua ematen duena. Zubietan axolagabeki botatako obra-hondakinak”. Beste argazki bat ere bazekarren txioak: Zumartegi industrialdean egindako garbiketetan egina. Zabor poltsez beterik ageri zen espaloia. “Denon ardura da ibaiak eta beren inguruak zaintzea”, esaldiak borobiltzen zuen Udalaren mezua.



Obra hondakinak, “Zubietan axolagabeki utzia”. Argazkia: Usurbilgo Udal.

Laburrean

Hurrengo odol ematea, martxoaren 2an

Bi hilean behin izan ohi da. Usurbilgo Odol Emaileen Elkarteak datorren hitzordua iragarri berri du: martxoaren 2an izango da, astelehenez, arratsaldeko 18:00etatik 20:30ak bitartean, anbulatorioan.

1972an jaiotakoen bazkaria

1972an jaiotakoak martxoaren 7an elkartuko dira, 14:30ean Urnietako Oianumen. Bertara joateko asmoa baduzu, honako kontu korrontean 40 euro sartu izen abizenak adieraziz: BBVA ES72 0182 0329 5102 01552922

Datorren astean, Jai Batzordearen bilera

Santixabel jaiak prestatzeko bilerak hasiak daude. Hurrengo hitzordua martxoaren 4an izango da, asteazkenarekin. Arratsaldeko 18:00etan elkartuko dira Po-txoenean. Aurreko astean iragarri bezala, jaiak uztailaren 1etik 5era ospatuko dira.

noaqua

Kultur Elkarte
Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea. 20.170 Usurbil
943 360 321 // elkarte@noaqua.eus // www.noaqua.eus
Jendaurreko ordutegia: 10:00 - 14:00 / 16:00 - 19:00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria:
Idoia Torregarai.
Aldizkari koordintzailea:
Imanol Ubeda.
Idazkaria: Aizpea Aizpurua.
Disinu berria: Erroitz S. L.

Erredakzio kontseilua:
Imanol Ubeda, Aritz Lasarte,
Itxaso Orbegozo.
Publizitatea: Beatriz Alda,
publizitatea@noaqua.eus

Banaketa: Inaki Irazusta,
Iban Maritxalar.
Tirada: 2.930 ale.
Lege-Gordailua: SS-668-96
ISSN: 1136-6818.

Inprimategia: Antza. Zirkuitu
Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.
Harremanetarako:
erredakzioa@noaqua.eus



Gipuzkoako Foru Aldundia





Ixaso Orbegoza

À bientôt

Inoiz ez omen dugu benetan jakiten bihar non egongo garen. Horixe bera gertatu zait niri ere. Duela urtebete ekin nion NOAUA!n lanean hasteari, eta ordutik Usurbil eta inguruetako bazterrak ederki nahastu ditut. Elkarriketak direla, ekitaldiak direla, batzuetan gogotsuago eta besteetan nekatuago, amaiera emango diot ibilbide honi urtebete beranduago. Duela urtebete pasatxo ez nekien herriko albisteen “maruja” izango nintzenik, eta duela urte erdi ere ez, orain amaituko dela.

Martxoaren 8ko grebaren gainean aritzeko, nire lehen elkarriketa egin nion antolatzaile taldeari. Urduritasunari aurre egin, eta ordutik hainbat izan dira pertsona zein telefonoz elkarriketatu ditudanak. Batzuk sarriegitan ere bai; bake ederra sentituko dute aurrerantzean. Badirudi betirako agur bat idazten ari naizela, baina Sagardo Egunerako itzuliko naiz. Zorionez edo zorritzarez, hiru hilabeteko denbora hartuko dut. Hiru

hilabete eskas baino ez diren arren, askori luze eta beste hainbati labur egingo zaizkio.

Bat ez da konturatzen zein zaila den hiru hilabeterako arropa eta beharrezko guztia maleta bat edo biren barruan sartzeari, are gehiago, negua izaki. Lehenik eta behin eraman nahiko nituzkeen gauzen zerrenda egin nuen: 15 beroki, 13 jertse, 9 kamixeta, 12 galtza pare, 15 zapatila... Behin zerrenda egiten hasita konturatu nintzen zenbat arropa daukadan, eta zenbat daukadan gogoratu ere ez naizen egiten. Aipatutako arropak ez dira etxean dauzkadanaren erdia ere, hori da okerreana. Behin aukeraketa egiten hasita, praktikotasunari heldu behar. Zertarako behar ditut 5 zapatila pare? Etxean horretaz ez konturatzea ere... Aukeraketa eginda eta maleta ixten zela jabetuta, Youtubeko bideoak ikusi nituen, ea antolaketa aldetik modurik onenean egin nuen ikusteko. Mila modutara probatu ostean, magiaz edo armairu osoa eraman ote nezakeen probatu eta gero, amore eman nuen eta hasieran prestatutakoarekin konfor-

matu behar izan dut. Oraindik ere posible da beste buelta pare bat gehiago ematea; zer egingo diogu bada. Bururatu ere ez zait egin kuadroak eta antzekoak eramaterik, bestela bi maleta baino 8 beharko nituzke-eta.

Behin arropa prestatzearen trantze gogorra pasata, Bruselari buruzko informazioa aurkitzea baino ez zait geratzen. Birritan izana naiz Belgikako hiriburuan, baina Manneken Pisez gain, ez nuke gainontzekorik mapan gutxi gorabehera ere kokatuko. Tren estaziora iristen naizenean ez dut jakingo norantz jo ere. Metroaren plano eta hiriko mapa aurkitu ditut Interneten; orientazio arras traketsa daukat eta horrekin ere ez naiz moldatuko, baina tira, nonbaitetik hasi behar. Etxera iristen asmatzen badut ilundu aurretik asebeteta sentituko naiz.

Ezin erakargarriagoa zait Belgika. Europaren bihotz bihotzean kokatutako herrialde txikiaren paisaiak Euskal Herrikoa gogorarazten dit neurri handi batean. Euri ugari egiten du neguan eta udaberrian, eta oso berdea da lurraldea. Erai-

kinek bestelako itxura dute oso, baina ezin politagoak dira teilatu punta zorrotz eta fatxada koloretsu horiekin. Hizkuntza ikuspuntutik ere oso aberatsa da, frantsesa eta nederlandera, biak dira hizkuntza ofizialak. Nire kasuan frantsesarekin moldatuko naiz hala hitz egiten dutenekin, eta iparraldean nederlanderaz hitz egiten dutenekin ingelesez. Ezinhobe datorkit herrialdean bi hizkuntza ofizial egote hori, eta lurraldearen banaketa horrek egunero erabiltzeko aukerarik ez ditudan bi hizkuntza horiek praktikatzeko abagune paregabea eskaintzen dit. Zer esanik ez Europaren erdi aldean egoteak bidaiatzeko dituen abantailak.

Gogo bereziz hastear dudan abentura honek zer dakarren ikusteko momentua heltzear da, eta gogoeta sakonagoren bat egingo dizuet itzuleran. Ea esperotako paisaia eder horrekin eta kultura ezin interesgarriagoarekin egiten dudana topo. Bitartean, Bruselan zenbait tek esango lukeen bezala à *bientôt*!

Imanol Ubeda

Aritz Gorriti

Luis Aranalde

Ixaso Orbegoza

Komikia



TOKIKOMeko hainbat hedabidek sustaturiko tira komikoa.

* Ika Mika atalerako idatzia gehienez 2.000 karaktere izango ditu. NOAUA!k ez du bere gain hartzen Ika Mika atalean adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik. Ezizena ere onar daiteke, baina idatziaren egile den gizabanakoaren edo elkartearen IFK edo baliokidea egiaztatu eta gero. Zuzenean beste pertsona bati zuzenduta dagoenean, izen-abizenekin argitaratuko da ika-mikarako idatzia. Hurrengo alea: martxoak 6. Idatzia ekartzeko azken eguna: martxoak 2.

2019an, gaikako bilketa %86koa izan zen Usurbilen

Erraustegia bezalako azpiegituren aurrean alternatiba sendorik badela erakusten duten zenbakiak segidan; Usurbilgo Udalak udal-erri honetako 2019ko gaikako bilketaren inguruan plazaratu dituen datuak. Hobetzeko tarterik egon zitekeela zaila zirudienean, herri honetan sortutako hondakinen ia %90a modu arduratsuan biltzera igaro da.

Udalak eskainitako datuak eskuartean izanda, egin dezagun denboran atzera. Atez ateko bilketak martxan jarri eta berehala irauli zuen Usurbilgo gaikako bilketaren ehunekoa: 2008ko %30etik 2009ko %71ra igaro ginen aipatu sistema abiarazi eta gutxira. 2010ean %80ko muga gainditu eta ehuneko hau hobetzea geroztik eta zailagoa izan arren, pixkanaka gorantz egin du. Marka guztiak hautsita, %86raino heldu zen Usurbilgo gaikako bilketa iaz.

San Marko eta Gipuzkoako ehunekoa hirukoiztear

San Marko Mankomunitateko nahiz Gipuzkoako datuen



Marka guztiak hautsita, %86raino heldu zen iaz Usurbilgo gaikako bilketa.

HONDAKIN MOTAK

“Iaz 286 tona ontzi arin bildu ziren, 377 tona paper eta kartoi, 834 tona biohondakin, 220 tona beira eta 3 tona etxeko olio”

oso gainetik da udalerri hau. 2018an San Markon, Donostia eta inguruko herriak barnebiltzen dituen lur eremuan, %50ean kokatua zegoen gaikako bilketa. Gipuzkoakoa %57an. 2008an San Markon

hondakinen %28 bildu ziren gaika, %32a Gipuzkoan. Ordutik 11 urtez, gorantz egin du bi eremuotan gaikako bilketak, ia bikoizteraino. Usurbilen aldiz ia hirukoiztu egin da gaikako bilketa.

Gaika jasotako hondakin kopuruan gorakada nabarmena izan da. Atez ateko bilketa abiatu aurretik, 2008an 2.870 tona hiri hondakin sortu zituen orduko 5.729 biztanledun Usurbilek, 501 kilo biztanle eta urteko. Atez atekoa abiatuta, urteko

3.000 tonaren bueltan mantendu da Usurbilen bildutako hiri hondakinen kopurua, 2013az geroztik urteko 470-517 kiloren bueltan. 2019an, 6.174 biztanlerekin 3.141 tona batu ziren; biztanleko eta urteko 509 kilo.

Bildutako hondakin motari erreparatu gero, iaz 286 tona ontzi arin bildu ziren, 377 tona paper eta kartoi, 834 tona biohondakin, 220 tona beira, 3 tona etxeko olio. 147 tona kudeatu ziren auto eta auzokonpostatze egitasmoen bidez.

1.921etik 430 tonara murriztu da erreusa

Erreusari dagokionez; 77 tona jaso ziren iaz etxeetan, 270 tona industrietan, 83 tona kale garbiketan. Guztira, 430 tona erreus. Bildutako hiri hondakin motaren bilakaerari erreparatzen badiogu, biohondakina da atez ateko bilketa martxan jarri zen urtetik gehien biltzen den hiri hondakina Usurbilen.

Erreusaren baitan sartzen dira, etxeetan, industriaguneetan edota kale garbiketan jasotakoa. Eremu guztiotan nabarmen murriztu da birziklaezina

den hondakin zatia. 2011tik 2019rako bilakaera datuak plazaratu ditu Udalak. Atez ateko bilketa martxan jarri eta bi urtera zenbatzen hasita, nabarmen murriztu dira batz bestea, tona kopuruak. Etxeetan bildutakoa 138tik 77ra, industrietakoa 361etik 270 tonara, 155etik 83ra kale garbiketan. Orotara, 653tik tonatik 430era murriztu da 2011-19 urte artean, Usurbilen jasotako erreus tona kopurua. Atez ateko bilketa abiatu aurretik, 2008an 1.921 tona erreus bildu ziren Usurbilen.

Gastu eta sarreraren hazkuntza nabarmena

Atez ateko bilketaren inguruko balantze ekonomikoa ere plazaratu du Udalak. Gastuak hazi diren neurrian hazi dira baita diru-sarrerak ere, atez atekoa abiatu zenetik. Gastuak 489.000 eurotik 933.000 eurora, sarrerak 250.000 eurotik 640.000 eurora. Horregatik defizitak ez du izugarritzko hazkuntza izan azken hamarkada honetan; 2009an 240.000 eurokoa zen, iaz 294.000 eurokoa.

Tarte honetan aipatzekoa

da, udalerri hau San Marko Mankomunitatean egonik, edukiontzien sistema indarrean duten beste zenbait herrietako gastuak ordainaraztera behartu dutela urte luzez.

Helegiteak aurkeztu izan ditu Udalak, Hernani eta Oiartzungoarekin batera. Eta auzitegiek arrazoia eman diete Usurbil, Hernani eta Oiartzungo udalei. 2014, 2015, 2016 eta 2017ko mankomunitateko aurrekontuak baliogabetu egin zituen Euskadiko Auzitegi Gorenak.

“Geure osasuna, ekonomia eta klimagatik”, erraustegia geratzeko deia larunbatean Donostian

Larrialdi ekologikoaz kezkatuak izan eta egoerari aterabide bat emateko euskal gehiengo sindikala, eragile ekologista eta sozial anitz biltzen dituen Larreko Mahaiak erraustegia geratzera deitzen ditu herritarrak larunbat honetan, otsailaren 29an, Donostian, “geure osasuna, ekonomia eta klimagatik, ez erre etorkizuna!” aldarripean. 17:00etan abiatuko da mobilizazioa Amarako Euskotrenen geltoki ondoko Easo plazatik.

“Aurrean dugun erronka ekologikoari eusteko, ez dugu erraustegirik behar”, gogorazazi zuten otsailaren 20an Donostiako Tabakaleran eginiko agerraldian. Erraustegiak duen baimena bertan behera utzi eta herritarren hitza entzuna izatea eskatuko diete agintariei. “Neurri ausart eta aurrerakoia behar ditugu, erraustekarik gabeko hondakinen kudeaketa iraunkor eta garden bat”.

Ingurumena, erdigunera
Bide horretan, berretsi zute-



Arratsaldeko 17:00etan abiatuko da mobilizazioa Amarako Euskotrenen geltoki ondoko Easo plazatik.

ANTOLATZAILEAK

“Trantsizio ekologikoa ardatz hartuko dugu eta bertan eragiteko konpromisoa geure egingo dugu”

nez, “ingurumena eta bizitza erdigunean jarriko duen jen-

darte eredu baten aldeko borrokan trantsizio ekologikoa ardatz hartuko dugu eta bertan eragiteko konpromisoa geure egingo dugu”. Bizi dugun larrialdi ekologikoa, “hondakinen kudeaketa lotsagarriaren ondorio ere badela”, dio Larreko Mahaiak. Zaborra pilatu eta erre, “etekin energetikoa ez, baizik eta ekonomikoa ate-

ratzen”, eginiko ahaleginaren ondorioa.

“Nork ordainduko du zorra?”

“Politika publikoetatik bermatu behar den trantsizio ekologiko batek eskumenen pribatizazio gutxiago eta demokratizazio gehiago eskatzen du. Nork ordainduko du erraustegiaren zorra?”, galdetzen du Larreko Mahaiak.

“Zaldibarren antzera”

Boterean diren konpromiso politiko erreala ez dela nahikoa salatzen dute eta hondamendi honen guztia “kaltea herritarrak ari gara jasaten, ingurumena, Zaldibarren ikusten ari garen antzera”. Oraindik zabortegean desagertuak segitzen duten bi langileen senideei eta Zaldibar nahiz inguruetan kutsaduraz alerta egoeran diren milaka bizilagun guztiei elkartasun osoa adierazi zieten. Bizi baldintza eta osasun arriskuen aurrean erantzukizun eta neurri hartze gabezia eta kudeaketa pribatizatuaren ondorio ekologiko

latz eta oraindik mendera ezinez ohartarazi dute.

Testuinguru honetan, konpromiso politiko eta kolektiboa beharrezkotzat jotzen dute, ingurumenaren zaintza oinarrituriko ereduaren babesa zabaltzeko. Horretan eragin asmo du Larreko Mahaiak.

Horrekin batera, hondakinen kudeaketaren gaian “herritarrok hitza eta erabakia hartu nahi dugu”, aldarrikatzen dute, “geure egunerokoen afera delako, zuzenean eragiten digulako, eta erraustetak geure lur, gorputz eta bizitzak kutsatzetik nahi ez dugulako”.

Hitza eta erabakia hartzerantz deitzen gaituzte, baita larunbat honetarako deitu duten manifestazioan ere. “Jendarte hau bizigarriagoa egiteko borrokan jarraituko dugu, dena baitugu irabazteko! Erraustekarik gabeko herri eta lurralde baten aldeko borrokan jarraituko dugu, ez diezaguten etorkizuna erre!”.

Zaldibarko Zubietara eramatea aztertzeakotan

Zaldibarko zabortegeak eremu anitzetan eragindako hondamendiaren beste ondorio bat. Gipuzkoako Foru Aldundiak

eta herrialdeko mankomunitateek iragan astean eginiko bileran hondakin industrialekin zer egin aztertzen hasi ziren. Egun bi zabortege ditu Gipuzkoak: Bergarako Epelekoa eta Mutiloakoa. Eta gero Zubietan eraiki dituzten azpiegiturak. Mutiloako ixtear dute. Industrietan sortutakoak kudeatzeko eskumenik ez du Foru Aldundiak, ezta Mankomunitateek ere. Baina ez dute baztertzen Zubieta gainean tratatzea. Dauden aukeren gaineko bideragarritasun teknikoa eta zer baimen behar diren aztertzeakotan dira.

Atxikimendu anitz

Larreko Mahaiak deitu due-
nez, eragile anitzen babe-
sa izango du larunbateko
manifestazioak. Besteak beste,
ELA, CCOO, LAB, STEILAS eta
EHNE sindikatuena, ikasleen
sindikatuena, Greenpeace eta
Eguzki talde ekologistena, Ernai
gazte erakundearena, Errauste-
giaren Aurkako Mugimendua,
Extinction Rebellion eta Gura-
SOSena. Kartelak eskutan hain-
bat kolektibo ere bat egiten ari
da mobilizazioarekin; tartean,
Udarregi Ikastolako langileak.
Argazkiaren egilea: Udarregi
Ikastola.

Zapiak jantzita, kartelak eskutan

GuraSOSek abian jarritako
“Kontuz, ama naiz!” ekime-
neko ama taldea ere, Larreko
Mahaiak otsailaren 29rako Do-
nostian deitu duen manifesta-
ziora begira da. Sare sozialen
bidez zabaldu duten bideoan,
buruan zapiak jantzita joateko
deia egin dute. “Denok Donos-
tiara zapia buruan!”, luzatu
dute gonbita. Eta kartel aldarri-



Udarregiko langile hauek atxikimendua adierazi diote larunbateko manifestazioari. Argazkia: Udarregi ikastola.

GURASOS

**“Denok Donostiara
zapia buruan!”, luzatu
dute gonbita**

katzaileak eskuetan eramateko
deia ere egin dute. Aste hasie-
ran aritu ziren prestaketa lane-
tan frontoian.

Erraustegiaren aurkako agenda

Otsailak 27, osteguna

■ 12:00 Elkarretaratzea Donos-
tiako Gipuzkoa plazan.

■ 19:00 Manifestazioa Lasar-
te-Oriako Okendo plazatik.

Antolatzailea: Ernai gazte an-
tolakundea.

Otsailak 29, larunbata

■ 17:00 “Osasuna, ekonomia
eta klimagatik, ez erre etorki-
zuna!” aldarripean, erraustegia
geratzeko manifestazioa Do-
nostia Easo plazatik.

Oharra: Usurbildik trenan ordu
erdiro abiatzen da Donostia-
rantz. 15:54ean aterako da bat;
16:24ean bestea.

Aire garbia arnastearen aldeko “performanzea”

Usurbilgo plaza. Asteotan au-
zolanean landutako kea zerion
erraustegiaren alboan, etorki-
zuneko belaunaldia, gazteena,
lurrean etzanda, “hilda”. Irudi
honekin abiatu zuen Aztarrika
Usurbilgo Gazte Asanbladak
Inauteri Festa egunerako ira-
garria zuen “performanzea”.
Erraustegiaren proiektuak
dakartzan ondorioak salatu
nahi izan zituzten. Halako
azpiegiturarik gabe bizi eta
aire garbia arnastu nahi dutela
aldarrikatu zuten.

“Performanze” ekitaldirako
mezuok biltzen dituen abes-
ti egokiena hautatu zuten;
2011ko martxoan, duela 9
urte, Zubietako plazan graba-



“Hartu nahi dut arnas” kanta ezagunaren koreografia dantzatu zuten aurreko larunbatean, Inauteri Festan.

tu zen “flashmob” ekimene-
rako sortu eta baliatu zena.

Milaka lagun dantzan jarri
zituen “Hartu nahi dut arnas”

kanta ezagunaren koreografia
plazaratu zuten.

“Proiektu kriminal hau martxan jarri duten agintarien izenak ez ditugu ahaztuko”

Herri mugimenduen eskariei, medikuen ohar-tarazpenei, alternatiba osasuntsuago eta jasagarriagoi bizkar emanda Zubietako erraustegia guztiz martxan jartzera doazela salatu zuen Erraustegiaren Aurkako Mugimenduak asteartean Donostian egin zuen agerraldian. “Proiektu kriminal hau martxan jarri duten agintarien izenak ez ditugu ahaztuko. Olano eta Asensio, zuen erraustegia izango da hau betirako”, adierazi zuten.

Zaldibarko hondamendia ahotan hartu zuten, “gutxi batzuen negozioagatik milaka herritarren osasuna” arriskuan jarri dutela salatzeke, agintari politikoak ezkututzen ziren artean. “Negligente hutsak dira” adierazi zieten, larrialdi egoerarekiko maila ez zutela eman aurpegiatzearekin batera.

“Pribatizazioaren bideak zer dakarren erakutsi digu”, mugimenduko esanetan, “zaborraren mafiak ez duela eskrupulurik”. Enpresa pribatuekiko Jaurlaritzaren kontrol falta, irregulartasunen aurrean “lagunei nola barkatzen dieten ikusi diegu”, haien esanetan datuak ezkutatzearekin batera “berdin izan zaie ia 10 egunez herritarrak kutsatzea”... “Eskandalu hutsa”, Erraustegiaren Aurkako Mugimenduaren iritziz.

Zaldibarko hondamendiak Zubietako erraustegiarekin gertatzen ari denarekiko antzekotasun handiak ditu: adibide gisa aipatu zuten, Aldundiak Urbaser enpresari hainbat hilabetez egunean 60.000 euroko isuna barkatu diola lanak garaiz ez amaitzeagatik.

Pauso berriak eman beharra

Hain zuzen, hango hondakinak Zubietako erraustegira ekartzea aztertzen ari dira



Alternatiba osasuntsuago eta jasagarriagoi bizkar emanda, Zubietako erraustegia martxan jartzera doazela salatu du Erraustegiaren Aurkako Mugimenduak.

ERRAUSKETAREN AURKAKO MUGIMENDUA

Zaldibarren
“pribatizazioaren bideak
zer dakarren erakutsi
digu”. Mugimenduko
esanetan, “zaborraren
mafiak ez duela
eskrupulurik”

erakundeak, “hori arazoa lekuaz aldatzea besterik ez da”. Ekonomia zirkularra aplikatzea aldarrikatzen du Erraustegiaren Aurkako Mugimenduak.

Gipuzkoako Ahaldu Nagusi Markel Olanori erraustegia kudeatuko duen enpresarekin hitzartutako 35 urterako akordioaren edukia erakustea eskatzen diote. “Egia jakiteko eskubidea dugu”.

Erraustegiko kontrol independenteak egiten eta egiazko informazioa zabaltzen segituko dutela iragarri zuten. Horrekin batera, Udalei eskaera argia egin zieten: “ez eraman gure hondakinak erraustera”.

Erraustegiaren aurrean alternatibak badirela frogatu dute Gipuzkoako hainbat udalerriek, Usurbil dugu aitzindaria. “Badago oraindik zer egina,

noski, eta bide onean doazen herriek hobetzen jarraitu behar dute, baina badira oso kezagarriak eta salagarriak diren egoerak eta herriak: Donostia, Irun, Lasarte-Oria, Hondarribia eta Elgoibar oso atzera dabilta, ez dute urratsik eman gaikako bilketan”, gogorarazten dutenez. Salatzen dutenez, “erraustegiaren beharra herriotan jasotzen den zabor nahasiarekin justifikatzen dute eta hori ez da bidezkoa. Herri horietako agintariak dute desastre honen erantzukizuna”. Politikez aldatzeko garaia dutela gogorarazten diete.

Mobilizazioak

Larreko Mahaiko kide den heinean, larunbaterako Donostian deitua dagoen manifestazioarekin bat egin du Erraustegiaren Aurkako Mugimenduak. Zubietako erraustegia guztiz martxan jartzen duten egunerako (agian martxoaren 3an) bestalde protesta ekintzak antolatzen ari direla iragarri dute. “Herri guztietan, arratsaldeko 19:00etan kandlekin eta beltzez jantzita kontzentrazioak deitzen ditugu”. Mugimenduaren sare sozialei adi egotea eskatzen dute, “bailiteke eta egunean bertan egin behar izatea deialdiak”.

“Emozioak familian, helduen eta haurren emozioak” hitzaldia Udarregi ikastolan

Haurrek emozioak nola bizitzen dituzten eta nola adierazten dituzten ulertzea ezinbestekoa da, “ondoren gurasoak helduak garen heinean, haurraren bizipenak jaso eta bideratzen laguntzeko”. Olatz Berastegik eskainiko duen hitzaldian “haurraren mundura gerturatzeko aukera izango dugu, eta guraso bezala nola gerturatzeko garen hausnartuko dugu eta gure burua hobeto ezagutuz, haurrari erantzun egokiagoa emango diogu”.

■ Martxoak 17 asteartea.

■ Arratsaldeko 17:00etan.

■ Ikastola Gorrian.

KzGunea datozen ikastaroak

Otsailaren 28ra arte 9:00-13:00 artean eta martxoaren 2tik aurrera hilabete osoz 16:00-20:00 artean zabalduko dute KzGunea.

■ Otsailak 27-28, 9:00-11:00 “Garraio publikoa zure Smartphonean”.

■ Martxoak 2-12, 16:00-18:00 “Google Aplikazioak zure Smartphonean”.

■ Martxoak 13-16, 16:00-18:00 “Google Argazkiak. Antolatu hodeian zure argazki guztiak”.

■ Martxoak 17-30, 16:00-18:00 “Eman lehenengo pausoak argazki ukituan GIMPeKin”.

■ Martxoak 26-27, 18:00-20:00 “Online izapideak Osakidetzarekin”.

■ Martxoak 30-31, 18:00-20:00 “Instagram. Partekatu zure argazki eta bideo onenak”.

Informazio gehiago:

Kale Nagusia, 37

943 023 684

tutor.usurbil@kzgunea.net

Errigoraren kanpainako uzta berria eskuragarri



Produktu guztiok otsailaren 27tik martxoaren 12ra eskatu ahalko dituzue NOAUA! bidez edota online errigora.eus atarian sartuta.

Nafarroa hegoaldean ekoiztako produktuak urte osoan izateko helburuz datorkigu bueltan Errigoraren udaberri parteko “Nafar hegoaldeko uzta eskutik eskura” kanpainaren edizio berria.

Esku bete produktuekin gainera: oliba-olio birjina estrakologikoa eta konbentzionala (5 litroko bidoiak); kontserba ekologikoak nahiz konbentzionalak (zainzuriak, pikillo piperrak, orburuak, barazki-menestra, tomate frijitua, arroza, potxak eta kremak. 12 ontziko sortetan eskuragarri), eta pasta ekologikoa (“stock” mugatua, eskaerak errigora.eus bidez soilik). Guztia, “euskaraz etiketatuta eta ekoizlearen jato-

rizko prezioan”. Gogoan izan, produktuok salduz jasotako laguntzaren zati bat Nafarroa hegoaldeko euskalgintza suspertzera bideratuko da.

Ordainketak NOAUA!n egin beharko dira

Produktu guztiok otsailaren 27tik martxoaren 12ra eskatu ahalko dituzue NOAUA! bidez edota online errigora.eus atarian sartuta. Bi txandatan jasoko duzue: oliba-olioa apirilean; kontserbak, arroza eta pasta maiatzean. Ordainketak produktuok NOAUA!ra heldu eta jasotzerakoan egin beharko dira. Informazio gehiago, errigora.eus atarian. Eskuorriak eta xehetasun gehiago NOAUA! K.E.-ren egoitzan.

Aldaketak, Sagarrondotik Sagardora ikastaroko saioetan

Alkartasuna Kooperatibak, Sagarkik, Bizi Sagardoak eta Usurbilgo Udalak antolatuta asteotan hasi eta urrira arte martxan izango den ikastaro praktikoko martxoko saioetan aldaketak iragarri dituzte. Hona hemen datorren hilabeterako hitzorduen agenda eguneratua:

■ Martxoak 7: “Sagastien ne-

guko kimaketa, gaixotasunak eta tratamenduak”. Aitor Etxeandia.

■ Martxoak 14: “Fruitu arbolaren udaberriko edo zotzeko txertaketa”. Josu Osa.

Izen ematea:

943 361 114
alkartasuna@usurbil.com
alkartasuna.eus

✓ Autobideetako zein aparkalekuetako hesiak irekitzen ditu!

✓ Gero eta autobide eta aparkaleku gehiagotan!

✓ Egungo deskontu-sistemarekin jarraitzen du!

✓ Orain Frantzia osoan ere bai!

✓ Bertsio eguneratua eta potenteagoa!

GOGOAN IZAN

abiato 2.0 BERRIAK

ESKAINTZEN DIZUN

GUZTIA!

BIDEGik teleordainketa-gailuaren berria den bertsio hobetu bat atera du gipuzkoar guztientzat.

Prestazio berriak, erabilera-eremu handiagoa, deskontu-sistema bera...

Abiato gailuaren erabiltzailea izan ala ez, dagoeneko abiato.bidegi.eus-en eska dezakezu gailu berria.

Eskatu!

Informazio gehiago: info@bidegi.eus | 943 105 106
GI-20 - KP / PK 14,800 - Aritzeta-Usurbil

Ilazki Gainza: “Emakume erreferenteei buruz ezer gutxi dago euskaraz”

Ia bost urte egin zituen Usurbilen Ilazki Gainzak nahiz eta egun Donostian bizi den. Feminismoaren arloan sutsu aritu zen herrian, eta oraindik ere ildo horretan lanean dihardu. Kalaka kooperatibako kidea da, eta iaz *Emariak* biografia liburua plazaratu zuten, emakume erreferenteak biltzen dituen liburua. Bide horri eutsiz, atera berri dute *Emariak* karta sorta, emakume erreferenteen gaia jolas bidez lantzeko material berria. NOAUA! rekin izan da Ilazki lan berriari buruz mintzatzeko.

NOAUA! Joan den urtean eskaini zenigun elkarrizketan azaldu zenuen *Emariak* fitxa modura atera nahi izan zenituztela eta, eskoletan lantzeko asmoarekin. Horren emaitza da karta-joko berria?

Ilazki Gainza: Hau da azken urteko lanketa prozesuaren emaitza. Lehen liburua atera genuenean ea bigarrena atera behar genuen askok eta askok galdetu ziguten, baina beste euskarri bat geneukan buruan bigarren lan honetarako. Liburua oso egokia



Iaz *Emariak* biografia liburua plazaratu zuten, emakume erreferenteak biltzen dituen liburua. Bide horri eutsiz, *Emariak* karta-jokoa atera berri dute.

EMARIAK KARTA JOKOA

**“Emariak
karta-jokoak
emakume
erreferenteen berri
ematen du eta euskaraz,
liburuak bezalaxe”**

da irakurketa bat egiteko, baina behin irakurrita kasu

gehienetan apalean geratzen da nahiz eta asko gustatu. Egunerokoan erabili ahal izateko materiala prestatu nahi genuen, eta joan den urtean jokoren bat prestatzeko ideiarekin aritu ginen bueltaka. Azkenean, mila buelta eman ostean karta sorta egitea erabaki genuen, zabalkunde handiko materiala izan daitekeelakoan. *Emariak* deitu

diogu mahai jolas euskarriari ere, liburuari bezala. Emakume erreferenteen berri ematen du eta euskaraz, liburuak bezalaxe. Ikuspegi feministatik beti ere.

Adin guztietako jendearengana iristeko ere baliagarri izan daiteke, eta liburuxka bat ere badakar betiko jolasetan aritzeko *Emariaken* karta sortarekin.

“Betiko jokoak moldatu ditugu”

NOAUA! Nolakoa da karta-jokoaren mekanika?

Ilazki Gainza: Betiko jokoak moldatu ditugu eta jolastuz ikasteko jokoak ere aukeran izango dira. Guztia liburuxkan azalduta dago. Poltsatxo batean dator bai karta sorta, bai eta azalpenen liburuxka ere. Joko bat baino gehiagotan jolasteko aukera izanda, egunerokotasunean eman dakioken erabilpena bermatzen da, eta beti berdi-

nean aritzeak sor dezakeen asperraldia ekiditen du. Liburuxkan denbora pasak ere gehitu ditugu, adin anitzetako jendearentzat: labirintoa, izen abizenak emakumearen irudiarekin lotzea, letra-zopa...

Poltsak ere funtzio bera betetzen du, edonora eta leku askorik hartu gabe eramateko modukoa da. Eguneroko erabilpenaren ildo horretatik prestatu dugu lan guztia.



“Poltsatxo batean dator bai karta-jokoa, bai eta azalpenen liburuxka ere”, Ilazki Gainzak aditzera eman digunez.

“Gure webgunean eros daiteke karta-jokoa”

NOAUA! Zer funtzio bete nahi ditu lan berriak?

Ilazki Gainza: Liburua bera azkenean ikastola ugaritan eskatu ziguten, liburutegietan ere arrakasta izan du, eta hitzaldiren bat edo beste ere eman dugu *Emariak* liburua inguruan. Oraingoa ere ikastoletan erabiltzeko eta familia giroan ere lekua izateko moduko lana da. Berdintasunaren gaia ikuspuntu askotatik jorratzeko aukera ematen du; askok lan munda bakarrak mugatzen dute berdintasunaren gaia, eta behin gizonezkoek adina irabazita hor amaitutzat ematen dute prozesua, baina ezberdintasuna hori guztia baino askoz sakonagoa da, eta lortzeko zailtasun gehiago ditu. Emakume erreferenteak arlo batean agian ezagutzen ditugu, baina gure jakintzaren osotasunean ia ezezagunak zaizkigu. Ez dugu esan nahi gizonezko erreferenteak ahaztu edo albo batera utzi behar direnik, baizik eta emakumeei ere haien lana errekonozitu eta ezagutzeko tartea eman behar zaie. Asko aldatzen du gure buruaren funtzionamen-



“Emakumeak arlo guztietan betidanik egon gara konturatzeko balio du karta-jokoak”, Ilazki Gainzak aitortu digunez.

EMARIAK JOKOA

39 emakume indibidual eta emakume talde bildu dituzte karta-jokan, eta komodin bat

dua emakume erreferenteak izateak. Lehenago emakumeak alor batean aritu direla ikusteak, animatu egiten ditu zenbait bide horri eusteko. Amets horiek ez daitezela zapuztu behintzat, erreferentzia faltagatik.

Nolakoak da karta sorta?

Emariak liburuan 12 emaku-

meren biografiak bildu genituen, eta karta sortak askoz ere gehiago biltzeko aukera eman digu. 39 emakume indibidual eta emakume talde biltzen dituzte kartek eta komodin bat: biologoak, lanbide maskulinizatueta ibili diren edo oraindik dabilzen emakumeak, pedagogoak, idazleak, kirolariak, etxeko andreak... Arlo bakoitzean hiru emakume jarri ditugu, kolore batek biltzen dituenak. Eugenie Brazier adibidez, 3 Michelin izar lortzen lehen pertsona izan zen munduan, eta bere bi jatetxeak batuta 6 izar lortu zituen. Ez zen izan lehen emakumea bakarrik,

lehen pertsona ere izan zen. Gaur egun oso modan dago sukaldaritzaren gaia, eta oraindik sukaldari ezagun gehienak gizonak badira ere, etxean janaria prestatzen jarraitzen duen gehiengoak emakume izaten jarraitzen du. Emakumeak arlo guztietan betidanik egon gara konturatzeko balio du, batzuetan zapalduago egon gara, besteetan libreago, eta herrialdeak ere neurri handi batean zeresan handia du horretan guztian, bai eta garaia ere. Edozein lan egiteko gai gara emakumeok, baina estereotipoen kontuak zenbait muga ezartzen ditu.

Non eskura daiteke karta sorta Usurbilen?

kalaka.eus atariko dendan eta lotuta ditugun salmenta puntu hauetan: Donostiako Hontza liburudenda, Hernaniko Urbietako kopien denda eta Arrasaten Olgeta jostailu denda. Liburua eskuragarri daukagu Usurbilgo Lizardi liburudendan, baina norbaitek karta sorta nahiko balu, eskaera bat eginda bidaliko genituzke.

Adin ezberdineko gazteentzat baliagarria

NOAUA! Ia urtebete pasatu da *Emariak* liburua plazaratu zenutenetik. Zer nolako baliantzea egiten duzue urtebete beranduago?

Ilazki Gainza: Ale asko saldu genituen, nahiz eta helburu nagusia salmentena ez zen. Irakasle eta guraso askok eskertu ziguten material hori eskuragarri izatea, bai eta irakurteraza izatea ere. Adin askotako haurrentzat izan da baliagarria; txikientzat irudi bidezko barneratzearen bidez, eta helduagoentzat ulergarria. Karta sortarentzat ere eskari asko jaso ditugu, nahiz eta pla-

zaratu berri dugun: ikastolak, liburutegiak, pertsona indibidualak... Ama batek kontatu zigun *Emariak* liburua erositak, behin semeak etxerako lan modura ikerketatxo bat egin behar zuela, eta nola bururatzeko zitzazkion pertsona guztiak gizonak ziren. Momentu horretan konturatu zen bere erreferentziazko figura guztiak gizonezkoak direla, eta semea-ri emakumeren bat hautatzeko proposatu zion. *Emariak* liburua baliatu ziren lan hori egiteko. Ikastoletan ere eskertu diguten informazio hori euskaraz ematea.

Aurreragoko proiekturik baduzue buruan?

Momentuz lan berria zabal-tzearekin nahiko lan izango dugu, baina aurrera begira beste zerbait egiteko asmoa badugu. Jendeak eskertu du gure lana eta behar horri erantzuteko lan egiten jarraitu behar dugula ikusten dugu. Ahal dugun neurrian gisa honetako baliabideak sortzen jarraitzeko asmoa dugu. Berdintasun planarekin lanean gabiltzan eta ikastoletan ere izan gara; Udaregira ere joango gara. Gustuko dugun lana da eta pozik egiten dugu. Informazioa badago, bai-

na ez da erraza topatzen. EHUn ikerketa egin zuten emakume zientzialariek, baina horixe, zientzialariek bakarrik. Topa dezakezu zerbait handik eta hemendik, baina osotasun batean materiala aurkitzea ez da erraza. Euskaraz ere oso gutxi dago oraindik, nahiz eta geroz eta gehiago dagoen.

Diru laguntzen bidez aurrera eramaten ari garen proiektua da, horiek gabe ezinezkoa litzateke horrelakorik egitea, eta ematen jarraitzen diguten bitartean gu gure aletxoak jartzen saiatuko gara arlo honetan.

Anbulategiko pediatria berriak ez daki euskaraz

Pediatria berria dute anbulatorioan. Kontua da ez dakiela euskaraz. Egoera konpondu asmoz, Usurbilgo Udala harremanetan jarri da Osakidetzarekin eta UEMAekin.

Udalak lehengo pediatria gera zedin eskatu zion Osakidetza, eta hori ezinezkoa izanez gero, behintzat berria euskalduna izatea. Azkenean, ez bat ez beste, pediatria berria erdaldu-na du Usurbilgo anbulatorioak.

Aurrekoak erretiroa hartu du UEMA Udalerri Euskaldunen Mankomunitateko kidea da Usurbil, eta beraz, euskara da herrian nagusi. Anbulategian ere euskaraz hitz egin ahal izatea bermatu nahi du Udalak. “Pediatria euskalduna izatea



Udala harremanetan da Osakidetzarekin eta UEMAekin.

AGURTZANE SOLABERRIETA

“Pediatria euskalduna izatea ezinbesteko baldintza da guretzat eta euskaraz bizi nahi duen herri batentzat”

ezinbesteko baldintza da guretzat eta euskaraz bizi nahi duen herri batentzat”, nabarmendu du Agurtzane Solaberrietta Mesa alkateak, Osakidetza-ri igorritako idatzian.

Betiko pediatriak duela gutxi hartu zuen erretiroa, eta pedia-

tra berriarekin ohitzen hasiak zirenean iritsi da aldaketa ama berrientzat.

Egoeraz kezkatuta, salaketa bana jarri du Udalak

Osakidetza ez zuen Usurbilgo pediatria postua esleitu oposizioak gainditutako medikuen artean. Udalak oraindik ez daki zein den benetako egoera, behin-behinean jarri duten pediatria ote den ala ez. Bien bitartean, salaketa bana jarri du Behatokian eta Elebiden. “Aldaketa horrek bereziki kezkatzen gaitu, etor daitekeen langilearen profesionaltasuna zalantzan jarri gabe, gaur egungo pediatriak dagoeneko herriko umeak eta errealitatea ezagutzen dituelako”, azpimarratu du Usurbilgo alkateak egoeraz kezkatuta.

BAZKIDEEEN TXOKOA

martxoaren 6an ZOZKETATUKO dugu:

NOAUAREKIN TXOTXI!

SAIZAR
SAGARDOTEGIAN

2 LAGUNENTZAKO
afaria

noaia! euskararen aterpe

Bazkide egiten bazara, opari eder bat jasoko duzu eta zozketa hauetan parte hartzeko aukera 943 360 321 / eukartea@noaia.eus

Animatuenak, gaztetxoak



Orbeldi Dantza Taldea, Zirimara, Gaztelekua, Udarregi nahiz Aginaga eta Zubietako ikastetxeak... Jai giroa nagusi izan zen aurreko asteburuan.

Dantzariak, plazara



Dantza egiteko mila aukera dago. Horietaiko asko irudikatu zituzten pasa den larunbatean. Argazki gehiago, noaua.eus/galeriak/ helbide elektronikoan.

Ordu txikiak arte luzatu zen jai giroa



Larunbatekoa mozorro festa bete-betea izan zen, goizetik gauera. Argazki gehiago, noaua.eus/galeriak/ helbide elektronikoan topatuko dituzue.

PLAZAN BAZAN

ESKULANA

MASKOR MARGOTUAK, EDERGARRI

Normalki udan joan ohi gara hondartzara, baina orain ere baduzu aitzakia ederra. Zoaz marea beheara denean eta bildu itzazu itsasoak ekarritako oskolak. Margotuta, apaingarri politak dira.



MATERIALA:

- Oskolak.
- Tipp-ex likidoa.
- Koloretako errotulagailu ezabaezinak



1. Hondartzan aurkituko dituzun oskol guztiak dira baliagarri, baina zenbat eta leunagoak eta argiagoak izan, orduan eta errazago margotuko dituzu. Zulo txoa izanez gero, lepoan zintzilikatzeko ere balioko dizute.



2. Bildu dituzun oskolak ilun samarrak baldin badira edo kolore biziak nahi badituzu, tipp-ex potoa hartu eta margotu lehendabizi zuriz. Lehortutakoan, ekin lanari.



3. Horra! Oskol honek munstro aurpegia du!

Zuen publizitatea hemen

☎ 943 360 321
publizitatea@noaua.eus



ANORGA TXIKI S.L.
KRISTALDEGIA

• komertzial instalazioak • beira bikoitza
• segurtasun beirak • dutxa-itxiturak eta irristailuak
• ispiluak • barandak • kristal mota guztiak...

Oria Etorbidea 4, LASARTE-ORIA 943 37 17 33- 610 45 93 45



PLAZAN BAZAN

ERREZETA

Egilea: Garbiñe Ubeda

PUTZURA!



OSAGAIK:

- Txokolatezko natillak, jogurta edo konpota eta azukre-pasta (Supermerkatu handietan edo saltoki espezializatuetan saltzen dituzte, kolore askotakoak daude).
- Tresnak: Koilara, labana, poto zapal bat.
- Denbora: 10-15 minutu.




Azukre-pasta plastilinaren antzean lantzen da eta kolore egokiak lortuz gero, edozein elementu egin daiteke. Ipurdiak gustuko ez badituzu, egin ezazu, esate baterako, ahate bat pasta horiz, edo igel bat, pasta berdez.



1. Hartu azukre-pasta, eta egin itzazu bi esku, bi oin eta ipurdi bat. Azukre-pasta plastilina bezala lantzen da. Labana lagungarri izango zaizu hatzak egiteko edo bi ipurmasailak bereizteko.

2. Jar itzazu elementuak potoan eta ondoren natillaz bete, kontu handiz, elementuak zikindu gabe.



txirriStra

TABERNA



-Plater konbinatuak
-Ogitartekoak
-Pintxoak

Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

Usurbil Autoak
MEKANIKA-KARROZERIA



SUSTITUZIO KOTKEA DOAN!!

ZUMARTEGI INDUSTRIALDEA

943 36 10 79

Hilabete osora hedatuko da Martxoaren 8a

Iazko greba egun eta planto feminista historikoaren ondorengotik, ate joka dugu berriz Martxoaren 8a. Oraingoan Euskal Herriko Mugimendu Feministak ez du greba eguna deitu baina gogorarazi duenez, “borroka feminista beharrezkoa da oraindik, gaur duela urtebete bezala, horregatik joan ginen Hego Euskal Herrian urtarri-laren 30ean greba orokorrera. Greba feminista emakume langileak antolatze bitarteko bat gehiago da, ez da helburu bat, beste eredu sozial eta produktibo bat salatzeko eta aldarrikatzeko tresna bat baizik, eta ahalegin eraldatzaile horretan jarraitzen dugu”.

Emakumeen autoantolaketa- ren beharra azpimarratzen segiko dutela iragarri dute. Ahal-egin askorekin eskuratutako eskubide sozial eta politiketan emandako atzerapausoei aurre egin behar diotela iragarri dute. Bide horretan sakondu nahi dutenei adierazi nahi diete- nez, “aurrean izango gaituzte, ez dira pasako!”. Mobilizazio eguna deitu dute martxoaren 8rako.



Euskal Herriko Mugimendu Feministak ez du greba eguna deitu oraingoan baina gogorarazi duenez, “borroka feminista beharrezkoa da oraindik”.

DEIALDI UGARI

M8 taldea, urtarila amaieraz geroztik hitzorduak antolatze-ko astero bildu da Potxoenean

Emakumeen Zirkulua Santuenean

Usurbila etorrita, ekimen zirkulua iragarri da. Santuenea Elkarteak sustatuta, Emakumeen Zirkulua osatzeko deia, 16 urtetik gorako neska gazte eta emakumeentzat. “Zirkuluan eserita burutzen dira saio

hauek, hierarkiarik gabe berdinetik berdinerara hitz egiteko. Konfiantzazko eta errespetuzko espazio batean elkarren bizi esperientziak elkarbanatuko ditugu, gure gidalerroa hilekoaren zikloa (martxotik ekainera) izanik. Horretarako dinamika ezberdinak proposatuko ditugu”. Gehienez 15 lagunek parte hartu ahalko dute bi dinamiztaileek bideratuko dituzten saioetan.

“Denak ongi etorriak izango dira”

“Elkar indartu beharrean, aldamenekoarekin lehian ga-

biltzan”, joera hau hautsi eta arbasoek aitzineko suaren buel- tan hierarkiarik gabeko zirkuluan biltzen ziren gisara elkar- tu nahi dute. “Bertan, kezka, irriak, beldurrak, lotsak, ame- tsak, desioak... elkarbanatzen zituzten, nor ziren elkarrekin gogoratuz”. Santuenean osatu nahi duten emakume zirkulua- rekin ere berdin egin nahi dute. “Denok gara berdinak eta ga- rrantzitsuak. Denok dugu iku- siak eta entzunak izateko es- kubidea. Denok bihurtzen gara elkarren ispilu, eta hartu-eman honi esker, osatzen goaz”.

Zirkulu honetan parte har- tze-ko gonbita luzatzen diote, “su inguruan bildu nahi duen emakume orori. Hartu zure beldurrak, lotsak, ametsak, irriak... eta ekarri guztiak zir- kulura. Denak ongi etorriak dira”.

“M8 egunero da” taldeak eta Usurbilgo Udalak ekimen zirkulua iragarri du asteotarako. M8 taldea, urtarilaz amaieraz geroztik hitzorduak antolatze-ko astero bildu da Potxoenean. Hemen duzue gaurkoz, eragile ezberdinek osatu duten egita- raua.

Martxoaren 8ari lotutako deialdiak

Otsailak 28-martxoak 31

■ Lurdes Huetaren argazki erakusketa Artzabal jatetxean. Antolatzaileak: M8 taldea eta Usurbilgo Udal.

Martxoak 1, igandea

■ 10:30 31. Lilatoia Donostiako Bulebarretik. Informazio ge- hiago: lilaton.es

■ 17:00-19:00 Emakumeen zir- kulua Santuenea Elkarte- an. Saioen egutegia: martxoak 1, apirilak 5, maiatzak 10 eta ekainak 21.

■ Informazio gehiagorako, doan izena emateko: 670027731.

Antolatzaileak: Santuenea Elkarte.

Martxoak 6, ostirala

■ 18:30 Dantzipuinak eman- dia Sutegin, Ixabel Agirreraso- be kontalariarekin eta Sebasto- pol dantza eskolako kideekin. Emakumeen inguruko ipuin eta dantzak elkartuta sortu du- ten emanaldia.

■ 21:00 Bertso-afaria Artzabal jatetxean, Uxue Alberdi, Onin- tza Enbeita eta Oihana Bartra- rekin. Gai-jartzaileak: Amaia Agirre. Txartelak: 18 eurotan salgai Artzabal jatetxean, o- tsailaren 26tik aurrera.

Martxoak 8, igandea*

■ 12:00 Mobilizazioak herrie- tan.

■ 18:00 Mobilizazioa Donostian. Deitzaileak: Euskal Herriko Mu- gimendu Feminista.

Martxoak 11, asteazkena

■ 19:00 Uxue Alberdiren *Jenisjoplin* eleberriaren inguruko euskarazko irakurketa-solasal- dia ikuspegi feministatik Su- tegi udal liburutegian, Kattalin Miner idazle eta kazetariare- kin. Liburuaren aleak aurrez eskuragarri liburutegian.

Martxoak 13, ostirala

■ 18:30 Berriaren Bidaia eta Mendi Kroniken Lehiaketako irabazle Maider Usabiagaren “Bidaia intimo eta gogoanga-

rria Alpeetan barna” solasaldia Sutegi udal liburutegian.

Martxoak 28, larunbata

■ 9:00-14:00 (goizekoa bete- tzen bada 15:00-20:00 artean bigarren saioa) “Jada maita- sunagatik sufritzen ez duten emakumeak: autoestimua eta autozaintza feminista” tailerra Coral Herrerekin Potxoenean (erdaraz). Izen ematea doan, bideotatik: parekidetasuna1@usurbil.eus / 943 377 110.

*Oharra: behin behineko egi- taraua. Aldaketak izan ditzake. Antolatzaileak: M8 taldea eta Usurbilgo Udal.

OSASUN GIDA 2020



USURBIL OPTIKA

Bigarren lente pareta doan:
lente progresiboetan,
irakurtzeko lenteetan
eta ikus-urruneko lenteetan

2. lente pareta doan

2x1

PROGRESIBOETAN
IRAKURTZEKOETAN
IKUS-URRUNEKOETAN

Zubiaurrenea, 10

943 370 269 • 675 708 654



Irati Ibargoiien FISIOTERAPIA-OSASUNA

PSIKOLOGIA

- Terapia indibidualak
- Mindfulness

PILATES TERAPEUTIKOA

- Indibiduala
- Taldeak

BESTE TERAPIA MOTAK

- Presoterapia

FISIOTERAPIA

- Amatasun prestakuntza
- Zoru Pelbikoko tratamenduak
- Terapia Manual Ortopedikoa (TMO)
- Fisioterapia eta osteopatia Funtzionala
- Puntzio lehorra
- FIM (fibrolisis instrumental miofascial)



943 53 92 66 Puntapax 6B, behea ez. USURBIL



Iturralde botika

Tomas Iturralde botika

33/17 PEZ

- Dosifikazio sistema pertsonalizatua
- Dermofarmazia
- Produktu homeopatikoa
- Maisu formulak

Borda berri 1, 20170 USURBIL 943 36 33 95

Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!

USURBILGO HORTZ KLINIKA

ANTTON BERNAL RUIZ DE OÑA
EKAITZ GARMENDIA MERINO

RPS: 28/17



Nagusia 10, 1.C4 943 37 08 78 USURBIL



Osakidetzarekin
hitzarmena

zenta

ORTOPEDIA BAT BAINO GEHIAGO

Puntako teknologia zure
autonomiaren zerbitzura

- Laguntza produktuen salmenta eta alokairua.
- Etkez-etxeko zerbitzu tekniko espezializatua.
- Etxebizitzaren egokitzapena.

www.zenta.es

Errekalde 59, Donostia 943 105 205



Kima

MASAJE LEKUA

• Kirol eta terapeutiko masajeak

Txirrindulariaren azterketa
biomekanikoa

943 366 197 Kale Nagusia, 44- behea • LASARTE-ORIA

Oinutsik

PODOLOGIA ETA POSTUROLOGIA

www.oinutsik.com - 943 11 09 54

etorri zaitez zure oinen eta posturaren
azterketa bat egitera!

sustraitu osasuna onetatik

Organoa omenduko duen Soinurbil, ate joka

Zumarte Musika Eskolak martxoaren 9tik 15era antolaturiko 16. musika astea ate joka dugu. Aurtengo hitzorduen artean, Salbatore Elizako organoa Usurbila heldu zeneko mendeurrena ospatuko da. Hemen aurrerapen moduan, datorren Soinurbilen agenda. Xehetasunak, hurrengo aldizkarian:

■ Martxoak 9, 18:00/19:00 Organo erakustaldia Salbatore Elizan.

■ Martxoak 11, 19:00 “100 urte organoa Usurbilen” emanaldia Salbatore Elizan: organoa, txistua, Irriu eta Zumarte Abesbatzak.

■ Martxoak 12, 18:30 Altsasuko Musika Eskolarekin trukaketa



Martxoaren 15ean Sakanako Haize Berriak musika bandak kontzertua eskainiko du frontoian.

Sutegiko auditorioan.

■ Martxoak 13, 19:30 “Broken Brothers Brass Band” taldearen emanaldia kalean.

■ Martxoak 14, 11:30 “Trakamatraka” emanaldia Artzabalgo plazan.

18:30 Illunbe Orkestra Sinfoni-

koa Salbatore Elizan.

■ Martxoak 15, 12:00 Sakanako Haize Berriak musika bandarekin kalejira. 13:00ean kontzertua frontoian.

■ Ekainak 3, 18:30 Altsasuko Musika Eskolarekin trukaketa Altsasuko Iortia Kulturunean.

Larunbat honetan, bertso-afaria Aginagan

Antxomolantxa Elkartek antolatuta, otsailaren 29an:

■ 20:00 Trikipotea Arrate tabernatik.

■ 21:00 Bertso-afaria Aginaga Sagardotegian Oihana Iguaran, Sebastian Lizaso eta Andoni Egañarekin. Menua: bakailu tortila, txuleta eta entsalada, gazta eta menbriloa, kafea eta kopa, txotxa barne.

■ Ondoren, erromeria: Ostolaza eta Lutxurdio.

Sarrerak: 30 eurotan salgai aurrez Aginaga Sagardotegian eta Arrate tabernan.

Antolatzailea: Antxomolantxa Aginagako Herri eta Kultur Elkartea.

Laguntzailea: Aginaga Sagardotegia.

NOAUA! KULTUR ELKARTEKO BAZKIDEEN BATZAR NAGUSIA

MARTXOAK 10, ASTEARTEA - POTXOENEA

1. deialdia 18.30 / 2. deialdia 19.00

GAI-ZERREDA:

- 1) 2019ko memoria eta balantze ekonomikoa
- 2) 2020ko egitasmoak eta aurrekontuak
- 3) Zuzendaritza Batzordearen osaketa eta onarpena
- 4) Galdera erantzunak



Idolia Torregarai Martija

Iraultza umoretik etorriko da edo ez da etorriko

Martxoak 8a gainean dugu eta olatu moreak berriro zipriztinduko ditu gure kaleak, aldarrikapen eta borroka protagonista izango dituelarik. Bizitzako eremu asko irauli behar ditugu oraindik, eta horietako bat da umorearena. Izan ere, barrearek emakumeak aske(ago) egingo gaituela sinesten dut.

Zenbat aldiz entzun/esan duzue emakumeak ez gara graziosak? Askotan, ezta? Duela oso gutxira arte emakumeak umore kontsumitzaile soilak izan gara, eta gizonak umore sortzaileak. Emakumeoi zeri barre egin, non barre egin eta noiz barre egin erakutsi zaigu, eta betiere jendetasuna mantendu behar izan dugu. Beste hainbat esparrutan bezala, umorean ere "hezi" egin gaituzte gizonen neurritik, noski. Zenbat aldiz barre egin behar izan dugu batere graziaz egin ez digun txiste batekin? Erakutsi digute gizonen txisteak direla "normalak" eta barregarriak, eta automatikoki barre egiten ikasi dugu. Emakumeak entzule soilak izan gara, eta horretaz gain, arduratsuak eta formalak izateko bete-



Bizitzako eremu asko irauli behar ditugu oraindik, eta horietako bat da umorearena.

IDOIA TORREGARAI

"(...) Nahikoa da. Bada garaia emakumeok umorean (ere) ahalduntzeko. Garaia da gure kezkak, bizitza, ametsak eta borrokak barrearen bidez deseraiki eta eraikitzeko. Umorea kritika soziala egiteko oso baliagarria delako, autokritikarako egokia delako, taldetasuna indartzeko aproposa delako,..."

beharra eman zaigu. Serioak, alegia. Umoretsua edo umorea sortzen duen emakume bat gaizki ikusia eta sozialki zigortua izan da, "ez zegokiolako". Nor ausartuko zen ba joko-zelai estu eta arriskutsu

horretatik ateratzen? Oso gutxi. Horrek ez du esan nahi emakume artean, eremu pribatuan (publikoa gizonezkoa baita), emakumeok ez dugunik barre egin, ez dugunik gure umorea sortu. Kontua da etxean edo konfiantzazko gunean egin dugula (eremu pribatuan) eta beraz, ezkutuan egon dela eta (publikoa=gizonena ez denez) ez zaiola baliorik eman.

Beste kupeleko sagardoa da emakume batek publikoki umorea egiteko erabakia hartzen duenean. Virginia Imaz clown zoragarriak dioen bezala, emakume batek umorea agertoki baten gainean egiten duenean, gure gizarteko hainbat marra gorri gurutzatzen ditu: 1) espazio publiko bat okupatzen du (normalean

gizonena izan dena). 2) Agertoki bat okupatzen du, espazio publiko nagusiene-tako bat dena. 3) Umorearen espazio sinbolikoa okupatzen du. Eta horregatik lupa zorrotzago batekin epaitzen dute.

Baina nahikoa da. Bada garaia emakumeok umorean (ere) ahalduntzeko. Garaia da gure kezkak, bizitza, ametsak eta borrokak barrearen bidez deseraiki eta eraikitzeko. Umorea kritika soziala egiteko oso baliagarria delako, autokritikarako egokia delako, taldetasuna indartzeko aproposa delako, funtzio iraultzaile ikaragarria duelako, gure osasunak eskertuko duelako eta batez ere, oso dibertigarria delako! Horretarako ez dugu denok umoregile bihurtu behar, ezta gutxiago ere, baina duen garrantziaz jabetu eta gure bizitzeko eta borrokatzeko estrategian txertatu beharko genukeela uste dut. Eta horretarako praktikan jarri behar dugu, umorea ere erabiltzen eta egiten ikasi egiten baita.

Prest zaudete? Ba hor doa martxoak 8rako nire lelo proposamena:

Patriarkatuari KAR, KAR, KAR!

Alazne Arruti Bengoetxea

Ainhua Azpiroz Eizmendi

Ugaitz Agirre Zapiain

Idolia Torregarai Martija



Xuak lehen aldiz bisitatuko ditu gurasoak, bereizi eta hilabetera

Xuak urtarrilaren 19an 3 urte bete zituenean, jada baldintzapean aske behar zuten arren, Valentziako Picassenteko espetxean zituen guraso Olatz Lasagabaster eta Patxi Urangarengandik bereizi zuten. Hilabete igaro da eta ordutik ez diete elkarrekin egoten utzi.

Otsailaren 20rako zuten eskatua alabarekin egoteko lehen bisita Olatzek eta Patxi, eta ukatu egin zieten. Aste honetarako zuten programatua bigarrena, eta hau ere hasiera batean ukatu egin diete. Martxoaren 20rako, bereizi zituztenetik bi hilabetera finkatua zieten lehen bisita. Azkenean ordea badirudi ostegun honetan bildu ahalko dela familia, Usurbilen Nahi Ditugu bilguneak NOAUA!ri aditzera eman dioenez.

Modulu ezberdinetan dituzte

Gogoan izan, Xua gurasoengandik bereizi zuten egunean, 600 kilometrora, Valentziako



Ostiral honetako elkarretaratzearen ordez, Lasarte-Orian egingo den manifestaziora hurbiltzeko deia egin dute.

USURBILN NAHI DITUGU

“Badirudi ostegun honetan bildu ahalko dela familia, Usurbilen Nahi Ditugu bilguneak NOAUA!ri aditzera eman dioenez”

Picassenteko espetxean zituzten Olatz eta Patxi. Gero aste-betez espetxe desberdinetan

bereiziak izan ostean, Madrilgo Aranjuezeko kartzelara lekuz aldatu zituzten Patxi hilaren 10ean eta Olatz biharamunean. Esan zieten ez dute bete, eta modulu ezberdinetan daude.

Helbide berriak

Hemen biekin hartuemanetan jartzeko, Usurbilen Nahi Ditugu bilgunetik helarazi dituzten helbide berriak:

Olatz Lasagabaster Anza
Centro Penitenciario MADRID
VI - Módulo F2
Carretera N-400, km. 28
28.300 Aranjuez (Madrid)

Patxi Uranga Salbide
Centro Penitenciario MADRID
VI - Módulo 1
Carretera N-400, km. 28
28.300 Aranjuez (Madrid)

Otsaileko azken ostiraleko ekitaldia Lasarte-Orian egingo dute, Usurbilen egin beharrean

Usurbilen Nahi Ditugu bilguneak bertan behera utzi du, hilero moduan, otsailaren 28rako Mikel Laboa plazan deitu ohi duen euskal presoak etxeratzeko elkarretaratzea. Ordu berean, Lasarte-Orian deitu den manifestazioan parte hartzeko deia egin du. “Izan ere, dispertsio-politika salatze-ko eta horren erruz hildako senideak bisualizatzeko Etxerat burutzen ari den kanpainaren barnean, oraingoa Argi

Iturralde eta Iñaki Balerdi lasartearen kasua nabarmendu nahi da. Biek ala biek 2003ko otsailaren 28an, justu orain 17 urte, preso zeukaten seme eta anaia Almeriara bisitatzera zihozela izandako kotxe-istripuan galdu zuten bizia. Istripu berean Joxe Balerdi aita larriki zauritua suertatu zen”, gogorarazi dute Usurbilen Nahi Ditugu bilgunetik.

Bizirik segitzen duen dispertsioa bertan behera uztea

exijituko da manifestazio honetan. “Tamalez, dispertsioak bizirik jarraitzen du oraindik ere. Eta hori gutxi balitz, azken 32 urtetan politika krudel horrek eragin dituen 16 hildakoek eta dozenaka zaurituek ez dute inolako aitortza instituzionalik lortu. Nonbait bigarren mailako biktimak dira. Argi eta Iñaki gure bihotzetan ditugula gogoratu eta Madrilgo gobernuak urrunketa eta sakabanaketaren des-

masia lehenbailehen bertan behera utz dezala exijituko dugu”.

Biharamunerako, otsailaren 29rako bestalde, ibilaldia antolatu dute Teresategiko oroigarriaraino. Ibilaldia goizeko 10:30ean abiatuko da Okendo plazatik eta 10:45ean Zabaletako Antonio Blas plazatik. Ibilalditik itzuli ostean, mokadutxoa iragarri dute 12:30ak aldera Xirimiri elkar-tean.

Hondarribia eta Orio nagusitu ziren Oriaren Jaitsieran

Orioko trainerua nagusitu zen emakumezkoen kategorian. Ez hori bakarrik. 2017an Hibaikak jarritako marka hobetzea (14:17:34) lortu zuten oriotarrek. Karkara aldizkarian irakurri dugunez, bederatzi segundotan ondu zuten estropadako denbora. Senior mutiletan, Hondarribia izan zen garaile.

Benidormeko Anemona Marina Baixa elkarteko emakumeek lehen aldiz parte hartu zuten Oriaren Jaitsieran. "Arraunlari horiek bularreko minbizia pasatako edo hori gaintzeko tratamenduan dauden emakumeak dira, eta duela urtebetetik arraunean egiten dute Club Nautico Benidormen. Hala, urrats bat aurrera egin eta Oriaren Jaitsieran parte hartzera animatu dira. Txalo zaparrada artean hartu dituzte ikusleek helmugan", hala jaso zatorren astelehen goizean karkara.eus web orrialdean.



Mutiletan hondarribitarrek izan ziren denbora onena ezarri zutenak. Nesketan, oriotarrak. Argazkia: karkara.eus

PARTEHARTZEA

91 ontzik eta 1.300 arraunlarik hartu zuten parte neguko traineru estropadarik garrantzitsuenean

Mutiletan, Hondarribia garaile
Mutilen senior mailan, Hondarribia izan zen azkarrena, 19:10:50 denbora eginda. Ia bost segundora iritsi zen Santurtzi. Hirugarren Orio helmugara

garatu zen.

Kategoria ugari

Senior mailako estropaden aurretik, ilagutak eta jubenil zein beterano mailako traineruak lehiatu ziren.

Oriaren Jaitsiera aurreko larunbatean jokatu zen. "91 ontzik eta 1300 arraunlarik hartu zuten parte neguko traineru estropadarik garrantzitsuenean". Eguraldia lagun, jende asko bildu zen errio bazterrean estropada bertatik bertara ikusteko.

Igande honetan, Lilatoia Donostian

Lilatoiak marka berri bat ezarri du. 6.500dik gora emakumeek eman dute izena. "Hitzik gabe utzi gaituzue, neskak! Aurten ere markak hautsi ditugu. Martxoaren lehen zuten mailan egotea espero dugu", Lilatoia sare sozialetan irakurri dugunez.

Bilketa puntuak

Izena ematerakoan, bilketa-puntu bat aukeratu behar da dortsala, kamiseta eta abar eskuratzeko. "Adierazitako egunetan eta ordutegian joan beharko duzu bila" ohartarazi

dute antolatzaileek.

Gorabeheraren bat izanez gero, lilaton@lilaton.es helbidera idatzi edo emakumearen etxera (Donostia) joan beharko zalanza argitzera.

Dortsalak aurretik jaso behar

Donostiako Emakumeen Etxean jasotzeko aukera hautatu baduzu, hauek dituzu horretarako propio ezarri diren egunak eta ordutegiak:

Otsailak 28, ostirala:

11:00 – 14:00.
16:00 – 19:00.

Otsailak 29, larunbata:

11:00 – 14:00.
16:00 – 19:00.
Emakumeen Etxea Donostiako Okendo Kalea, 9 zenbakian aurkituko duzue.

31. Lilatoia

Lasterketa igande honetan goizeko 10:30ean abiatuko da, Donostiako Boulevardetik. 5 km-ko luzera du Lilatoiak. Donostiako erdigunetik igarotzen da, jai giroan, eta "berdintasuna aldarrikatzea du helburu. Lelo honekin: Norantza bakarra du bideak".

Eskubaloit partidak Oiardo kiroldegian

Eskola Kirola

Otsailak 29, larunbata

■ 9:30 Alebin mutilak:
Udarregi 5A-Udarregi 5B
■ 10:30 Alebin mutilak:
Udarregi 6A-Udarregi 6B
■ 11:45 Infantil neskak,
2. faseko finala:
-Udarregi A Usurbil
-Ereintza Aguaplast

Martxoak 1, igandea

■ 12:00 Infantil neskak,
amaiera fasea B:
-Udarregi B Usurbil
-Garajes Axiri Pulpo EK

Usurbil K.E.

Otsailak 29, larunbata

■ 13:00 Senior mutilak,
Gipuzkoako Txapelketa:
Usurbil K.E.-Ormaiztegui K.E.
■ 16:30 Kadete mutilak, Euskal Liga, Euskadiko Txapelketa:
-Usurbil K.E.
-Ereintza Aguaplast
■ 18:30 Kadete mutilak Teritorialak, Diputazio Torneoak:
-Usurbil K.E.
-Aukera Electrotecnica Hondarribia

Martxoak 1, igandea

■ 10:30 Alebin mutilak,
errendimendua:
Usurbil K.E.-Pulpo EK. A

Futbol partidak Haranen

Otsailak 29, larunbata

■ 9:30 Eskola Kirola.
Alebin neskak:
-Udarregi 6A-Urnieta
-Udarregi 6B-Urnieta
■ 10:45 Infantil neskak:
Usurbil F.T.-Intxaurdi KE B
■ 12:00 Infantil mutilak:
-Udarregi Usurbil FT B
-Zumaiaiko FT
■ 15:30 Kadete neskak:
-Usurbil FT
-Astigarragako Mundarro FKE
■ 17:30 Erregionalak:
Usurbil FT-Touring KE

Martxoak 1, igandea

■ 11:00 Futbol Eskola 2011:
Usurbil FT
■ 12:00 Futbol Eskola 2008:
Usurbil FT-Billabona
■ 15:30 Kadete mutilak:
Usurbil FT-Hernani CD

ETXEBIZITZA

Salgai

Etxebizitza salgai; 2 logela, egongela, sukalde handia, 2 balkoi, dena kanpo aldera begira. Komuna duela gutxi berritua. 56m². Lokala 22m², garaje bezala eta sapai txiki bat trastelektzat. Interesatuak 675 007 422.

Etxebizitza salgai Kalezarren: 79m² berritua, 2 gela, komuna, sukaldea, jangela, egongela, harrera. Dena kanpoaldera. Ganbara handia partekatua. 35m² garajea aukeran. 686462705

Etxebizitza salgai Santuenean: 2 gela, sukalde handia, egongela, komuna, bi balkoi, egongela. Argitsua, dena kanpoaldera. Etxeko eta komunitateko obra guztiak eginak. Trasteleku pribatua portalean. 677471648

Etxebizitza egin daitekeen 61 metro karratuko lokala salgai Munalurran. Nahi izanez gero, lizentzia, proiektua eta etxebizitza egiteko aurrekontua eskuragarri. 943 916 182 (Jon)

Etxea salgai, Zubiaurrenean. 70 m². 3 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Balkoia trasteleku. Dena kanpora. Fatxada eta teilatua berrituta. 688 779 465.

3 logela eta ganbarako etxebizitza salgai edo alokairuan Aginagan. Berritu berria, eguzkitsua eta lasaia. Tel. 650450869

Etxea erosi nahi dut Usurbilen. Kaxkotik gertu dagoen auzo batean. Gehienez 100.000 euro ordaintzeko prest. Tel. 666 770 851

Etxebizitza eta garajea salgai. Biak batera edo aparte. 3 logela, sukalde-egongela, 2 bainugela. Etxebizitzak 78 m² eta garajeak 50m². Tel. 676 453 176.

Pisu bat salgai Kale Nagusian. 3 logela, sukaldea, egongela eta 2 bainugela. Dena kanpoaldera.

OHARREI DAGOKIEN ARAUTEGIA

Orri honetan agertzen diren oharrak doakoak dira. Telefonoz edo emailaz helarazi daitezke: 943 360 321 / erredakzioa@noaua.eus

Oharrak bidaltzeko azken eguna: astelehena, eguerdiko 12:00ak. Atal bakoitzaren goikaldean ipiniko ditugu berrienak. Oharra egokia ez dela erabakiko balitz, NOAUA!k ohar hori argitaratu gabe utziko luke.

Ganbara prezio berruan. Prezioa: 205.000 euro. Tel. 629 631 838

Alokairuan

Etxe bat edo logela bat alokatu nahiko nuke Usurbil edo inguruan. Kontratua beharrezkoa. Gustura jasoko dut zure deia horretarako aukerarik baduzu. 633141060

Etxebizitza baten bila gabilta. Baserrri bat zainduko genuke aukeran. Familia bat gara, bi seme ditugu eta euskaldunak gara. 630 335 561.

Marradun garaje bat alokairuan Bizkarre auzoan. 696 014 585

Alokairuko pisu baten bila gabilta. Bi neska gara, biak lanarekin, arduratsuak eta garbiak. 688893668

Alokairuko pisu baten bila nabil. Tel. 620 708 265 / 686 143 786.

Logela bat alokatuko nuke. Mutil langilea, serioa eta arduratsua. 651 197 381 / 632 138 393

MOTORRA

Salmenta,
garajeak

Santuenea auzoan trastero txiki baten bila nabil. 626 735 354

Nissan Terrano 2 markako kotxea salgai. 943429682 / 637293471

Kale Nagusian garaje bat salgai. Ez da garaje itxita. Prezioa negoziagarria. 667336405.

Atxegalden garaje bat erosi edo alokairuan hartuko nuke. 653014518

Garaje itxi bat alokatzen da Errekatziki kalean. Tel. 616 235 366.

Alokairuan 50m²-ko lokal/garaje bat Atxegalden. Autoak sartzeko atearakin. Goiko kalea 2. 676453176

Baju bat alokatzen da Munalurra, 4ean. Tel. 652 765 583

Garajea salgai Txaramunto kalean. 23 m², ate elektrikoa eta itxia. 615744628.

LANPOSTUAK

Lan eskaintzak

Game Masterra behar dugu Quantum Escape Room-en. Gaztea bazara, eta jokoak nahiz ihes gelak gustatzen bazaizkizu bidali CVinfo@quantum.eus helbidera

Usurbilgo neska edo mutil bat behar dugu, ingeleseko klase partikularrik emateko. 608201745

Txiribogan asteburuarako langileak behar dira. Interesatuok hona deitu: 629 951 931.

Sukaldari laguntzaile bat behar dugu Lukainategi erretegiaren. 680 483 164

Zerbitzaria behar da Lasarteko taberna baterako. Interesatuak deitu telefono honetara: 607110365.

Finantza eta aseguruetakokudeatzailea behar da Buruntzaldean. Baldintzak: Esperientzia gabe aseguruetan, prestakuntza enpresaren kontura eta kotxearekin. Betebeharrak: profesio-naltasuna eta seriotasuna, lanbide-heziketa eta baldintza onekin. Tel. 699 760 873

Udarregi Ikastola partikularrik emateko prest dagoen jendearen zerrenda eguneratzen ari da. Partikularrik emateko prest egongo bazina, bidali mezu bat: gorputzaldiak@udarregi.eus

LANPOSTUAK

Lan eskaerak

Esperientzia eta erreferentziak ditut. Etxeko lanak, pertsona helduak zein umeak zainduko nituzke, orduka zein egun osoz. Interna moduan aritzeko ere disponibilitatea. T602830982

Usurbilen lan bila nabil zaintza lanak edo etxeko lanak egiteko. Esperientzia handi eta erreferentzia onak. Orduka zein lanaldi osoan aritzeko disponibilitatea, interna ere bai. T617857807

Garbiketa eta zaintza lanak egingo nituzke. Esperientziarekin. Orduka, interna edo lanaldi osoz aritzeko disponibilitatea. 603315126

Garbiketa lanak, edo zaintza lanak egingo nituzke. Disponibilitate osoa daukat eta esperientzia antzeko lanetan. 631818150

Pertsona helduak eta haurrak zaintzeko edo garbiketan aritzeko lan bila nabil. Denbora osoz edo orduka. 602424658

Eraikuntzan, jardineritzan edo bestelako ofizioetan lan egingo nuke. Bizargin moduan aritzeko ere bai. 602424658

Laguntza soziosanitarioa behar baduzu ez izan zalantzarik deitezke. Esperientzia zabala osasun

eta zaintza alorrean. Kontxu 619827232

Orduka lan egingo nuke Usurbilen garbiketa lanetan zein zaintza lanetan. T689027247

Lanaldi osoz aritzeko lan bila nabil. Esperientzia asko 661091863

Adinekoak zaintzen zein garbiketa lanak egiten esperientziaduna. Disponibilitate osoa. Egoitza baimeana ere badut. 645067560 Betza

Adinekoak zainduko nituzke. Esperientziaduna. 666097595.

Lan bila nabil. Adinekoak zaintzeko prest. 617016290.

Lan bila nabil asteburuetakora, adinekoak zaintzeko. 688712294

Lan bila nabilen gazte bat naiz. Garbiketan edo pertsona helduak zaintzen, arratsaldetan edo gauean. Tel. 633 159 088.

Lan bila nabil, garbiketan, orduka edo lanaldi osoz aritzeko. 633148710

Lan bila nabil, pertsona helduak zaintzeko, arratsaldetan edo gauean. 655 986 552

Lan bila nabil. Garbiketan edo pertsona helduak zaintzen. Segituan lanean hasteko moduan. 631 703 566

Lan bila nabil. Garbiketan edo pertsona helduak zaintzen. Segituan lanean hasteko moduan. 632 618 839

Lan bila dabilen mutil bat naiz. Pertsona helduak zaintzen edo garbiketan. Tel. 617 016 290

Lan bila nabil. Pertsona helduak edo umeak zaintzen, garbiketan, ostalaritzan edo plantxa egiten. 676 188 411

Lan bila nabil. 655 986 552

Mutil langilea naiz. Pisu baten bila nabil alokairuan altzaririk



Zorionak Ekai,
aurten 8 urte!
Etxekoen artean
goxo-goxo
ospatuko dugu
egun handi hau.
Muxurik
goxoenak
zuretzako!



Zorionak Laia!
Martxoaren 1ean
5 urte beteko
dituzu. Muxu
erraldoi bat
zuretzat eta
egun zoragarria
pasa dezazula!



Zorionak paria!
Ondo pasa martxoaren 1 eta 3an!
Muxu haundi bat etxekuen partez!

gabe. Soldatarekin. 666 108 164

Haur edo adinekoak zaintzeko emakume esperientzia handia duena eskeintzen da. Baita ere etxeko garbitasunerako. 602568090 / 658706345

Lan bila nabil. Helduak edo umeak zaintzen, edo garbiketan. Berehala lanean hasiko nintzateke. 603 818 142

Lan bila nabil. Helduak edo umeak zaintzen, edo garbiketan. Berehala lanean hasiko nintzateke. 648 271 757

Lan bila nabil. Helduak edo umeak zaintzen, edo garbiketan. Berehala lanean hasiko nintzateke. 617 016 397

Neska arduratsua lan bila nabil, umeak edo helduak zaintzeko edo garbiketan. 632 285 101

Lan bila nabil. Pertsona helduak edo umeak zaintzen. 632 264 187

Lan bila nabil. Pertsona helduak edo umeak zaintzen. 688 712 294

Ikastolatik atera ondoren umeak zaintzeko prest dagoen neska usurbildarra naiz; gaztea eta euskalduna. Edozer dela ere, deitu edo bidali whatsapp mezu bat lasai 688637679 zenbakira, Maddi.

Lan bila nabil. Margolari bezala lan egin dut, garbiketa lanetarako titulua dut, "catering"ean ere aritu izan naiz. 686 51 35 36.

Pertsona helduak edo umeak zaintzen lan egingo nuke. 631 864 292.

Pertsona helduak edo umeak zaintzen, edo garbiketan lan egingo nuke. Tel. 617 748 714.

Lan bila dabilen neska arduratsua naiz, esperientziarekin. Umeak arratsalde zainatzeko prest. Maria 672340330

Pertsona heldu edo depen-

dienteak zaindu edota etxeko garbiketa lanak egiteko prest. Soziosanitario titulua dut eta esperientziaduna. 686 825 587.

Ordukako lan baten bila nabil arratsaldeetarako, garbiketa eta haur edo helduen zaintza lanak egiteko. Berehala hasteko prest. Erreferentziak ditut. Esperientziaduna. 688 77 41 80.

Pertsona helduen zaintza lanak egiteko lan bila nabil. Berehala hasteko prest. Esperientziaduna eta erreferentziak ditut. 658 45 36 76.

Emakume arduratsua, garbiketa lanak eta haur zein helduak zaintzeko prest. 617 75 15 22

Emakume bat etxeko nahiz zaintza lanetan aritzeko prest. Esperientziaduna. 693000147

Lan bila dabilen neska bat naiz. Arduratsua eta esperientziarekin. Garbiketa lanak egiteko prest. 11:00-17:00 bitartean. Tel. 603 315 126

Lan egiteko prest dagoen neska bat naiz. Garbiketa, zahar edo haurren zaintza... Paperekin eta esperientziarekin. 618 350 804.

Lan egiteko prest dagoen neska bat naiz. Zaharrak, haurrak, etxeko lanak... Esperientziarekin. 688 777 464.

Lan bila nabilen neska bat naiz.

Tel 602 069 147

Lanean berehala hasteko prest. Neska jatorra, arduratsua eta langilea. 604166831.

Lan bila nabil. Garbiketan, pertsona helduak edo umeak zaintzen. Berehala lanean hasiko nintzateke. 632 140 789.

Lan bila dabilen neska arduratsua naiz, esperientziarekin. Berehala lanean hasiko nintzateke. 637 106 649.

Lan bila dabilen mutil bat naiz, esperientzia ere erreferentziekin pertsona helduak zaintzen. Ospitaleetan, paseatzeko eta pozik edukitzeko prest nago. Berehala lanean

hasiko nintzake. 603 595 656

Emakume arduratsua naiz, eta lan egingo nuke, pertsona helduak zaintzen edo etxeko lanak egiten. 663 488 438

Garbiketa lanetan edo pertsona helduak zaintzen lan egingo nuke. 617 064 054

Lan bila nabil. Pertsona helduak edo umeak zaintzen. 619 355 819

BESTELAKOAK

Isabelita Mandarinina Japoniarra (txoriak) ditut salgai. 7659185107

Ingelesarekin laguntzeko, Usurbilgo pertsona baten bila nabil, DBH 1ean ikasten ari den nire alabarentzat. 627 18 46 74

AMC markako eltze bat daukat salgai. Oso ondo dago 943363201

Matxaka; sagarra txikitzeko tresna daukagu salgai. Itziar 637974994.

Baserriko kalabazak salgai. 605 783 227.

Estilo guztietako txirikordak (trenza) egiten dira. 658706345, 60256809.

Andatzpe Elkartean bazkide berriak sartzeko plaza libre dago. Edozein zalanatza argitzeko 669 205 896 (Aitor).

Andatzpe elkarteko bazkidea naiz, plaza saldu nahiko nuke. 699 421 238 Iñigo.

Ohe artikulatua salgai. 1'35 neurriko da eta berri berria dago. 650 027 123.

TRUKEAN, OPARI

Inprimatzaileak, telebistak, patinetak, liburuak... Atalluko Garbigunean, doan hartu daitezke. Astelehenerik ostiralera: 10:15-13:00 / 16:00-19:00. Jai egunak ez diren larunbatetan: 9:00-13:00.

Telefono interesgarriak

Udala.....	943 371 951	Abere-Landare Babeslea.....	943 376 650
Atez ateko bulegoa.....	900 776 776	Taxia (Angel).....	607 928 770
Udaltzaingoa.....	943 361 112	Taxia (Joxe Kruz, 8 plaza).....	677 373 466
Udal zerbitzuak (Brigada).....	943 370 148	Eusko Tren.....	943 470 976
Sexu Aholkularitza Gunea.....	697 919 516	LurraldeBus.....	943 000 117
Gizarte Zerbitzuak.....	943 377 110	Korreos - posta zerbitzua.....	943 362 894
Diputazioa - Basetxea.....	943 361 215	Anbulategia.....	943 362 013
Bake Epaitegia.....	943 372 336	Amenabar botika (Iehen Oa).....	943 376 076
Udarregi Ikastola.....	943 361 216	Iturralde botika.....	943 363 395
Haur Eskola.....	943 374 061	DYA.....	943 464 622
Zubietako Lanbide Eskola.....	943 364 600	Gurutze Gorria.....	943 272 222
Zubietako Herri Batzarra.....	943 372 077	Emergentziak.....	112
Hastapen tailerrak.....	943 360 465	Genero-indarkeria, arreta ..	900 840 111 / 016
KZgunea.....	943 023 684	Gonzalez Ehorztetxea.....	943 362 163
Oiarde Kirolegia.....	943 372 498	Kutxabank.....	943 361 202
Sutegi Udal Liburutegia.....	943 360 692	Euskadiko Kutxa-Laborala	943 364 740
Zumarte Musika Eskola.....	943 371 594	Banco SabadellGuipuzcoano.....	943 370 006
Etumeta AEK euskaltegia.....	607 609 379	Banco Popular Español.....	943 370 411
Kalezar Eguneako Zentroa.....	943 365 249	BBVA.....	943 377 155
Gure Pakea Zahar Egoitza.....	943 368 770	Caja Rural Kutxa.....	943 368 842
Gure Elkartea Zahar Egoitza.....	943 371 751	Argindarra - Iberdrola.....	901 202 020
Arrate Zahar Egoitza.....	692 898 492	Gas naturala - Naturgas.....	902 123 456
Usurbilgo Salbatore Parrokia.....	943 361 239	Telefonica.....	1004
Noaua! Kultur Elkartea.....	943 360 321	Euskaltel.....	900 840 840

Goardiako farmaziak

Osteguna 27	GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte
Ostirala 28	ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte
Larunbata 29	ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte
Igandea 01	ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte
Astelehena 02	DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte
Asteartea 03	LASA SUQUIA Kale Nagusia 42, Lasarte
Asteazkena 04	GIL MARTIN Kale Nagusia 24. Lasarte

Otsailak 27 - Martxoak 08

Osteguna 05	ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte
Ostirala 06	URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte
Larunbata 07	URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte
Igandea 08	URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte

LARUNBATETAN,
Usurbilgo bi farmaziak ireki-
ta egongo dira: 9:00-13:30

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ
CASTILLA-LARBURU
URBIETA KALEA, 7 HERNANI
943552941

Gainontzeko datak www.cofgipuzkoa.com web orrian ikusgai.

Agenda

otsaila/martxoa

28 ostirala

- Euskal presoen eskubideen aldeko manifestazioa Lasarte-Orian. 20:00etan, Oken-do plazan.

29 larunbata

- Kantu-jira. 12:30 Mikel Laboa plazatik.
- Erraustegia geratzeko manifestazioa. 17:00etan Donostiako Easo plazan.
- Bertso-afaria Aginagan. 20:00 Trikipotea Arrate tabernatik. 21:00 Bertso-afaria Aginaga Sagardotegian.

01 igandea

- Haurrentzako zinea euskaraz: "Mr. Link: jatorri galdua". 17:00etan Sutegiko auditorioan.

Mr Link: jatorri galdua filma eskainiko dute igandean Sutegin

U surbilgo Udak Ziortza Gazte Elkartearekin batera negu parterako antolaturiko euskarazko zine zikloaren azken proiektzioa iragarri dute igande honetarako; "Mr Link: jatorri galdua" filma, ohi bezala, 17:00etan Sutegin. Sarrerak egunean bertan 3 eurotan eskuratu ahalko dira.

Lionel Frost ikertzaileak mitoak eta munstroak ditu ikergai. Izaki arraro eta maitagarri bat aurkituko du, bere espezieko azkena, eta Mr. Link izena jarriko dio. Frostekin batera, Mr. Linkek bidaia zoragarri bezain dibertigarri bati ekingo dio duela asko galdutako Yeti lehengusua aurkitzeko asmoz.

Horretarako, Adelina Fortnight aben-



"Mr Link: jatorri galdua" filma ikusteko sarrerak egunean bertan ipiniko dituzte salgai Sutegin.

turazale adoretzuaren laguntza izango dute, Fortmightek baitauka Yetien kokagunea adierazten duen mapa bakarra. Hirurek elkar hartuta, arrisku ugari gainditu beharko dute helmugara iristeko.

Kantuzaleak plazara aterako dira larunbatean

Otsaileko azken larunbatarekin batera plazaratuko dira kantu zaleak. Usurbilgo Euskal Kantu Taldea eguerdiko 12:30ean abiatuko da Mikel Laboa plazatik. Astelehenero biltzen dira ikastarorako, 18:00-19:00 artean, Agerialdeko musika gelan.

Argazki erakusketa Gure Elkartean

Maria Jesus Etxeberriak argazki bilduma ikusgai izango du martxoaren 4tik 29ra Santueneko Gure Elkartea jubila-tuen bilguneko tabernan.

Egunero, 9:30-22:00 artean, astearreetan izan ezik, itxita egongo baita.

Datozenak

Martxoaren 6an, "Dantzipuina" Sutegin

Emakumeen inguruko ipuin eta dantzak elkartuz sortu da Dantzipuina. "Bertan ipuinak entzun eta dantza zuzenean eskaintzen da. Dantza, ipuina. Ipuina, dantza. Dantzipuina gozatzeko aukera izango dugu".

- Martxoak 6 ostirala, 18:30ean Sutegin.

- Dantzaria: Jaione Albeniz (Sebastopol dantza eskola).

- Kontalaria: Ixabel Agirresarobe.

- Iraupena: 50 minutu.

Antolatzaileak: Udaleko Parekidetasun Saila eta Sutegi udal liburutegia.

Martxoaren 11n, "Jenisjoplin" Sutegiko irakurketa-solasaldian

Uxue Alberdiren *Jenisjoplin* eleberria ikuspegi feminista batetik aztertuko dute martxoaren 11n Sutegin. Kattalin Miner idazle eta kazetariak gidatuko du solasaldia. Ohar hau zabaldu du udal liburutegiak: "Jenisjoplin liburutegian eskuratu ahal izango duzu; izan ere, liburua aldeztu aurretik irakurri gero, etekin handiagoa aterako diozu topaketari. Anima zaitez parte hartze-ra!". Antolatzailea: Udaleko Parekidetasun Saila eta Sutegi udal liburutegia



EGUNEKO MENUA KARTA
PLATER KONBINATUAK
OGITARTEKOAK · TOSTAK
MENU BEREZIAK

ARTZABAL
BASERRIA · JATETXEA

943 36 91 39

www.artzabaljatetxea.eus



Patrika
Jatetxea

· bazkariak EGUNERO
· afariak, ostegunetik larunbatera

943 362725 · 688 690 361



EROSKI/city

kale Nagusia 10, USURBIL

943 361182

URDAIRA

Sagardotegia

astelehenak itxita

Aginaga 943 37 26 91



OTSUA-ENEA SAGARDOTEGIA

943 55 68 94

Osinaga bailara, HERNANI



LARRE-GAIN DOLARE SAGARDOTEGIA

Urtarrilaren 18tik maiatzak 3ra
TXOTX-GARAIA

Hernanitik autobus zerbitzu propioa
lgande gaua eta astelehenetan ITXITA

Larre-Gain Baserria Ereñotzu - Hernani

Tel: 943 55 58 46 Mugik: 616 287 867

www.iruinsagardotegia.com

IRUIN sagardotegia

TXOTX denboraldi
berria 2020. primerako
sagardoekin
943.361.229



ELUTXETA

SAGARDOTEGIA • ERRETEGIA

Urte guztian irekita astelehena izan ezik.



Oztaran bailara • URNIETA (Gipuzkoa) • 943 55 69 81



943 37 39 95

Kalezar 39, USURBIL sidreria@sidrassaizar.com www.sidrassaizar.com

SAGARDOTEGIA aginaga

Hotela **

URTE OSOAN
ETXEKO SAGARDOA
TXOTXETIKI!
ORAIN, BERTAN LOTAN
GELDITZEKO AUKERA!
ASTELEHENETAN ITXITA

943 36 67 10



Aginaga, USURBIL www.aginagasagardotegia.com

Txotxetik sagardoa
jarraitu usadioa!

%100 bertako satarra

Tel: 943 365 031

Santuenea



Otsailak 29
18:00

SARRERA
DOAN!



Txirri, Mirri eta Txiribiton Urbilen!



urbil.es